

AUTOGOBERNUARI BURUZKO EZTABAIDA. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak atzo ohar batean kritikatu zuen Javier Arenas Espainiako Herri Administrazioetarako ministroak EAJ, EA eta EB-IUri euren ideia politikoei uko egiteko eskatu izana.

Madrilek Estatutua garatzeko «ideia politikoei uko egiteko» eskatzea salatatu du Ibarretxek

Javier Arenasek herenegun igorritako gutunari erantzun zion atzo Lehendakaritzak

Erredakzioa | GASTEIZ

Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak eta Javier Arenas Espainiako Herri Administrazioetarako ministroak berriro ere kritikak egin dizkiote elkarri, Estatutuaren gaineko eztabaidaren harira. Ibarretxek igorritako lehen gutunari Estatutuak aurreikusitakoa negoziatzeko prest dagoela erantzun zion herenegun Arenasek, baina betiere Espainiako Konstituzioak ezarritako esparruaren baitan; era berean, egungo legedia oso osorik aplikatzeko asmoa badu, «legetik at dauden hainbat erabaki alde batera» utzi beharko lituzkeela gomendatu zion, autogobernuari buruzko txostenean Nafarroari eta burujabetzari erreferentzia eginez.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzak atzo prentsa ohar baten bidez erantzun zion Arenasi: «Ministroak emandako erantzunak agerian uzten du, berriz ere, Madrilgo gobernuak ez duela Estatutuaren edukiarekin bat egiten eta ez dagoela prest betetzeko». Jaurlaritzak eratzten duten alderdiei «beren zilegizko ideia politikoei» uko egiteko eskatzea «sinestezina» dela iritzi dio Ibarretxek ohar horretan. Era berean, Arenasi gogorazi dio iazko hauteskundeetan Eusko Jaurlaritzak «herritar gehienek konfiantza» lortu zuela, eta EAEko biztanleen %48,30 ordezkatzen dituela. Halaber, azpimarratu du «gehienek konfiantza hori» hauteskunde programa jakin bati esker lortu zutela.

Gasteiz eta Madrilen arteko eztabaida politikoa argitzearen, Ibarretxek interesgarri deritzo Arenasek adierazteari Estatutuaren agindu eta edukiekin bat datorren, besteak beste, Lehenengo eta Bigarren artikuluekin eta Xedapen Gehigarriarekin. Lehenengo artikulua dio, adibidez, «Euskal Herria bere naziotasunaren adierazgarri, eta bere burujabetasunera iristeko, Espainiako estatuaren barruan Komunitate autonomo gisa eratzten» dela.

Bukatzeke, Ibarretxeren aburuz, «ez da onargarria» Arenasek esatea Eusko Legebiltzarrak onartutako txostena berari ez dagokiola, eta Estatutuaren arabera autogobernu nola bete eta garatuko duen argitu gabe jarraitzea.

Gauzak horrela, Espainiako presidenteorde lehen Mariano Raxoik atzo adierazi zuen Iba-



LUIS TEJIDO / EFE

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA. Josu Bergara Bizkaiko ahaldu nagusiak, Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak eta Miguel Angel Aranaz Gernikako alkateak Bakearen Museoa sortzeko oinarriak jarri zituzten atzo. «Bakearen kultura hedatu» behar dela esan zuen Ibarretxek.

EAJ-REN BATZAR NAZIONALA

PP eta PSOE «urduri» daudela dio Egibarrek

Humberto Unzueta / **BILBO.** Gernikako Estatutua betetzeko Eusko Legebiltzarraren ekimenak alderdi popularra eta sozialista «urduri» jarri eta «ustekabeen» harrapatu dituela esan zuen atzo Joseba Egibarrek. EAJ-ren EBBko bozeramailearen hitzetan, «herri hau nazka-nazka eginda dago, Estatutua ez delako bete eta bere etorkizunari bideak itxi nahi zaizkiolako».

Burukide jeltzaleak gogor jo zuen Espainiako Gobernuaren zein popular eta sozialisten aurka, Eusko Legebiltzarraren ebazpenaren aurka esan dituztenengatik. «Estatutua betetzeko eskatzea Konstituziotik eta legaltasunetik kanpo geratzea baldin bada, zer demokrazia mota da hau?», galdetu zuen Egibarrek.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Joseba Egibar, EAJren EBBko eleduna, atzo, Sabin Etxean.

Estatutua betearaztearen aldeko agertu ondoren, Egibarrek ohartarazi zuen Madrilek autogobernu ebazpena betetzen ez badu Eusko Legebiltzarrak egin beharko duela. Ondoren, Gasteizko ganberak asmo hori gauzatzeko tresna guztiak ez di-

tuela aitortu zuen, eta bidea ez dela «erraza» izango.

Autogobernu txostenaren bigarren erabakia ere ahotan hartu zuen Egibarrek: «Behar-beharrezkoa da itun politiko berri bat herri honentzat». Bere ustez, itun horrek Estatutuaren irakurketa murriztaileak saihestu behar lituzke, «eta baita alde bakarreko erabakien inposizioak ere, azken 23 urteetan gertatu den legez».

Adierazpenok jeltzaleen Batzar Nazionalaren testuinguruan egin zituen Egibarrek. Udako etenaren aurretik eta irailean hasiko den ekinaldi politikoari begira, EAJk bere batzarkideak bildu zituen atzo, Sabin Etxean, alderdiaren azken erabaki eta asmoen berri emateko. Egoera politikoak hala aginduta, autogobernuarena izan zen bilerako gai nagusia. Egibarrek esan zuen «kontu funtsezkoa» dela, «eta ez bakarrik hurrengo ikasturteari begira, baizik eta legealdi osoan».